
Ulermen testak

GIDA

Atalak Testak < Joseba Butroe

- Ulermen probak
 - Test probak
 - Testak nola egin
 - Enuntziaturako zer aukeratu
 - Enuntziatuen moldea
 - Aukerak, nolakoak
 - Item eredu batzuk
-



Ulermen probak

Funtsean, **testuen** ulermenari buruzko probak bi modutan egin ohi dira: edo **galdera irekiak**, alegia, azalpen bat behar dutenak (laburragoa edo luzeagoa); edo **testak**.

Azalpena eskatzen duten probetan, emandako erantzuna interpretatu edota balioztatu egin behar izaten da eta, horregatik, ez dira testak bezain objektiboak izaten. Duda gabe, test erakoak hobeak dira, onenak.

Testak izanez gero, honakoak izan daitezke:

- A Adierazpen bat ebaztea: Egia - Faltsua
- B Galdera bat planteatuta: Bai - Ez
- C Enuntziatu bat eta horren erantzun posibleak: a-b-c edo a-b-c-d
- D Testu zati bat eta horri buruzko adierazpen labur posibleak: a-b-c edo a-b-c-d

Test moldekoei TP edo AAP deitzen zaie, hots, Test Proba edo Aukera Anitzeko Proba. Eta ariketa edo galdera bakoitzak *item* izena hartzen du; alegia, testaren unitate bakoitza (zenbakia) item bat da, enuntziatua (E-F, B-E) edo enuntziatua gehi aukerak.

Test probak: sarrera

Esan bezala, test erakoak dira ulermen proba onenak, baina beti ere ondo diseinatu eta eraiki badira; alegia, jarraibide batzuen arabera eta zehaztasun tekniko batzuk beteaz egin badira. Eta dokumentu honen xedea irakur-liburuak (IL) direnez, ondoko lerroetan eleberri baten ulermen test bat egiteko prozedurak eta teknikak azalduko dira.

Izan ere, test proba bat eraikitzerakoan, zehaztasun tekniko batzuk bete behar dira, bi alderditan: enuntziatu mailan eta aukeretan.

Oinarria: testua (eleberria) arretaz irakurri duenak erantzunak asmatu ahal izatea; baina liburua irakurri ez bada, erantzun zuzena zein den asmatzea zaila gertatzea.

Testak nola egin

ENUNTZIATURAKO ZER AUKERATU

Bai enuntziatuak badira (baieztapenak, galderak) edo bai testu zatiak badira, lehen-lehenik edukiak finkatu behar dira: zertaz galdetuko da?, zein testu zati izan daitezke egokiak?

1 Argumentua eta gertaerak

- A Oinarrizko edukiak (informazioak), argumentuarekin lotura estua dutenak.
- B Baita pasadizoak edo gertaera zehatz batzuk ere, obraren irakurleak gogoan izango dituenak, deigarriak direlako. Ez garrantzi gutxikoak.

2 Pertsonaiak

Baina ez galdera xaloak, liburua irakurri gabe ere, erreferentzien bidez (kontrazala, sinopsiak...) erantzun daitezkeenak.

- A Pertsonaien izaeraz: nolako pertsonak diren, ezaugarriak...
- B Pertsonaien jokabideaz: une batzuetan zer sentitu, zer pentsatu duten, zergatik erabaki duten hau edo hori...

3 Moldea

- A Narrazio tekniketara buruz, deskribapenak, elkarrizketak..., edo beste berezitasun batzuei buruz.
- B Egituraketari buruz: ea lineala, flash-back erakoa, kapituluaren antolaketa, pasarteak...

4 Elkarrizketak

- A Argumentuarekin lotura estua duten zatiak, edo gertaera garrantzitsuak hobeto ulertzeko balio dezaketen solasak.

Testuen ulermena

- Galdera irekiak
→ azalpena
→ balorazioa
- Testak
→ objektiboak

Test motak

- Adierazpenak
→ Egia / Faltsua
- Galderak
→ Bai / Ez
- Enuntziatuak
→ A / B / C / D
- Testu zatiak
→ A / B / C / D

Enuntziatuak

- Argum./gertaerak
→ eduk./pasadiz.
- Pertsonaiak
→ jokab./pentsam.
- Moldea
→ tekn./egiturak.
- Elkarrizketak
→ solas garrantzi.

ENUNTZIATUEN MOLDEA

1 Orokorrak

- A Enuntziatuak **neurrikoak** izan behar du; ez luzeegia eta, hortaz, korapilatsua.
 B Enuntziatuak ezezka planteatzea **ez** da komeni: errakuntza eragin dezakete.

2 Aukerakoetan (a-b-c-d)

- A Enuntziatuak adierazpen **osoa** izan behar dira, ez erantzunetako batekin osatzen direnak. Aukeretan hitzen bat errepikatzen bada, orduan enuntziatura eraman behar da.
 B Muina (kontzeptuak) hobe enuntziatuan jartzea, eta ez aukeretan.

AUKERAK, NOLAKOAK

- A Neurrikoak izan behar dira aukera guztiak, bai zuzena eta bai distraigarriak: **antzeko** luzerakoak, eta ez hitz askokoak.
 B Hiru distraigarriko itemak (1+3) zorrotzagoak dira bikoak baino.
 C Aukera zuzena **ziurra** izan behar da. Bihurria izan daiteke, baina gainerako aukerekin alderatuta, hobea.
 D Aukera okerrak, edo distraigarriak, **balekoak** izan behar dira; ez berez balio gabetzen direnak, baizik eta enuntziatuaren aukera sinetsgarriak (eta gramatikalak).
 E Aukera zuzenean kontuz ibili behar da nahigabeko **laguntzarik** ez emateko. Adib.: enuntziatuarekin komunztadura argia, hitz berberak edo oso antzekoak...
 F Aukerak zorizko ordenan **kokatu** behar dira beti: zuzena edozein postutan.

Enuntz. moldea

- **Neurrikoak**
→ Ez luzeegia
→ Ez ezezka
- **Aukerakoetan**
→ Enuntziatua, osoa, ez moztua
→ Muina enuntz., ez aukeretan

Aukeretan

- **Neurrikoak**
Antzeko luzera, denek
- **Zuzena, ziurra**
Distraigarrien aldean, hobea
- **Distraig. balekoak**
Posibleak eta gramatikalak
- **Zuzenean, adi**
Nahi gabe, laguntzarik ez
- **Kokapena**
Zorizko ordenan

MAILAKETA

Landutako liburuaren arabera, zein adinetako irakurleentzat den aintzat hartuta eraiki behar dira bai enuntziatuak eta bai aukerak.

Item eredu batzuk

Obra	Enuntziatuak eta aukerak • (E / F) (a-b-c-d)
<i>1280 arima</i>	• Elkarrekin ehizan zirela, nahi gabe hil zuen Nick-ek Tom, eztabaida sutsu batean.
<i>Ehun metro</i>	• Eleberriko kapituluak protagonistaren ume garaiko pasarteekin hasten dira.
<i>Gerezi denbora</i>	• <i>Gerezi denbora</i> kantaren letra, frantsesez, bazekiten protagonistak eta taldekideek.
<i>Gorrotoa lege</i>	• Eleberriaren hasieran, zertara doa Jaun Matxin Olasokoa Butroera? a) Jaun Estibariz Mendiolakoak bidaiarako laguntza eskatu ziolako, erasoetatik babesteko. b) Jaun Matxinek ganboarren bake proposamen bat darama Butroeko jaunarentzat. c) Butroeko familiako alabarekin ezkontzeko, Onekarekin hain zuzen. d) Olasokoa ganboarren Aramaio hartzeko asmoen berri eman nahi dio Butroeko jaunari.

Testutxoak	Aukerak • (a-b-c-d)
Baraxuengo tantaiaik bete zuen bere eginkizun tristea. Nahiago zukeen honek heriotze batekin bere egitekoa bukatu, eta horretarako ahaleginak egin arren, bere buruaren segurantzak biak hiltzea eskatu zion.	a) Larrabetzuko dorretxearen aurkako erasoan, soldadu ezagun batek bi errugabe hil zituen. b) <i>Itxuskok</i> Mondragoeko alkatea eta berarekin zihoan Jaun Baladi ere hil zituen. c) Joan Latzek Otxoa eta Jaun Bikendi Arexolako hil zituen unekoa da. d) <i>Burdek</i> Jaun Eneko eta Mari Gabon hil ditu Ibarako jauregian.
Begiak itxita, eskua bihotz aldera eraman zuen azken hitzak ahoskatzerakoan: <i>dilegua o notte, tramontate stelle, all'alba vincero, vincero...</i> Baina orduan, ariaren goreneko notara igotzeko bultzada hartzen ari zen unean, emakumezko baten oihuak erabat hondatu zuen giro zirrargarria.	a) Detektibeak opera emanaldi batean daudela, istiluak sortu dira, oihuak eta. b) Tenorearen saioa boikotatzera joan den emakume bat da pasarteko protagonista. c) Sena ibaian, itsasontzi batean doazela, turista talde bat opera saio bat entzuten ari da, eta eta ustekabeko eten bat gertatu da.